

ANIZTASUN IDENTITARIOTIK, XXI. MENDEKO BILBAINISMORA.

Bilbotar identitateak, hauen arteko harremanak eta bilakaerak
XX. mendean zehar.



Historiako gradu amaierako lana

MIKEL EZKURRA FUIDIO

Tutorea: Javier Ugarte Telleria

2020-2021 ikasturtea

Laburpena: *Identitate soziala kolektibitate baten partaide izatearen sentimendu bezala definitu daiteke. Partaide izatearen sentimendu hori elementu ezberdinek osatzen dute: ama hizkuntzak, klase sozialak, ideologiak..., elementu horiek identitatea eraiki eta kohesionatzeko funtzioa beteko dutelarik. Lan honek XX. mendean zehar bilbotar identitatearen eraikuntzan parte hartu duten elementuak aztertuko ditu. Lanak XX. mendean zehar egiten duen ibilbidean, identitate bakoitzak bere hedapenerako erabili dituen baliabideak, identitate ezberdinen arteko harreman dialektikoa (edo hegemoniaren bataila) edota industrializazioaren garapenak identitateetan izan duen eragina ikusiko dugu. Bide beretik, koiuntura politikoak eta hiriaren hazkunde demografikoak identitateen bilakaera baldintzatzerako orduan izan duten papera aztertuko da. Azkenik, lan honek, XXI. mendeko bilbainismoaren inguruko hipotesia planteatuko du. Horretarako, identitate berri hori eraiki duten ardatzak mahaigaineratuko dira.*

Hitz gakoak: Identitatea, Bilbo, pluralismoa, XXI. mendeko bilbainismoa

Abstract: *Social identity is defined as a feeling of belonging to a collective. This sense of belonging is constructed through differing elements, such as social class, ideology and language, which will have the function of constructing and giving cohesion to identity. This article aims to analyse the elements that have constructed a Bilbao identity during the twentieth century. The article, which looks at the whole of the twentieth century, will analyse the means by which Bilbao identities have developed, the dialectical relationship between distinct identities (or the struggle for hegemony) and how industrialisation has conditioned this development of identities. In the same way, it will analyse the role of the different political conjunctures and of population growth over the course of the century. Finally, the article will propose a hypothesis about the Bilbao identity of the twenty first century, by exploring the axes on which this new identity has been built.*

Key words: Identity, Bilbao, pluralism, Bilbao identity of the twenty first century

AURKIBIDEA

1. Sarrera	2
2. Bilboko identitateen bilakaera 1960. urtera arte	4
2.1. Aniztasun identitarioa 1937. urtera arte	4
2.1.1. Euskal pluralismoa mende hasieran	4
2.1.2. Identitatea indartzen duten elementuak	6
Klasea	6
Hizkuntza	9
Prentsa eta aisialdia	10
2.1.3. Euskal pluralismoa errepublika garaian	12
2.2. Frankismoa, identitate baten inposaketa	13
3.1. Kultura politiko zaharren birformulazioa, oposizio berriaren artikulazioa eta kultura	15
3.2. Bilboren industriaren eraispena eta krisi sozialeko identitateak	18
3.3. XXI. mendeko bilbainismoa	20
4. Ondorioak	24
BIBLIOGRAFIA:	25

1. Sarrera

Identitatea, talde sozial batekiko atxikimendu bezala definitu daiteke. Baina identitatea hori baino askoz gehiago da, heldulekoa da, gizartea eta errealitatea aztertzeke eta bertan parte hartzeke indibiduoek bere egiten duten posizioa. Gizakiok talde sozial baten parte izateko premia izan ohi dugu, eta ariketa horrek giza harremanak erreztu eta indibiduoari errealitatea ulertzeko eta bertan parte hartzeke prisma (subjektiboa) eskeintzen dio. Identitate sozialaren teoria Henri Tajfel gizarte piskologoak 1970eko hamarkadan garatu zuen, zeinaren arabera gizakiek positiboki pertzibitutako taldeetan sailkatzeko joera dute haien autoestima indartzeko. Norberaren talde sozialaren (endotalde) balorazio positiboa beste talde sozial baten (exotalde) balorazio negatiboan oinarritzen da askotan. (Peris eta Agut, 2007: 3)

Sozialki positiboki pertzibitutako identitatea da bilbotarra. Halere, “bilbainismo” moduan ezagutzen den identitate hau ez da betikoa (ikusiko dugun bezala), nahiz eta hegemoniko bihurtzearen ondorioetako bat ezagutzen dugun moduan betidanik existitu egin dela pentsatzea den. Ikerketa lan honetan, Bilbon XX. mendean zehar egon diren identitate ezberdinak aztertuko ditugu. Identitate hauen arteko harremanak, lehiak, sozialki izandako balorazioa edota identitate batzuen desagerpena aztertuko dugu. Bestetik, XX. mendearen amaieran, aipaturiko XXI. mendeko bilbainismoa hegemoniko bihurtzearen prozesua ikertuko dugu, eta honek gaur egun Bilbon betetzen duen funtzio kohesionatzaile eta politikoaren inguruko hipotesia planteatu.

Beraz, identitatea gizakiok gizartea ulertzeko eta bertan parte hartzeke hartzen dugun posizionamendu indibidual eta kolektibo bezala ulertzen badugu, mundu ikuskerara hori osatzen duten elementuen (jatorria, ama hizkuntza, klasea, erlijioa, kultura, aisialdia...) analisia egitea beharrezkoa da. Hortaz, mundu ikuskeran parte hartzen duten aipaturiko elementu hauek izango dira Bilbon XX. mendean egon diren identitateak ulertzeko jarraituko dugun haria. Gure helburua, Bilbon elkarbizi izan diren identitate guztiak aztertzea baino, identitateen arteko harreman dialektikoa, bilakaera, eta koiuntura politiko zein ekonomiko ezberdinek ekarri dituzten identitateak aztertzea izango da.

2. Bilboko identitateen bilakaera 1960. urtera arte

2.1. Aniztasun identitarioa 1937. urtera arte

1878eko kontzertu ekonomikoaren bidetik, Bilbon egoera ekonomiko, politiko eta sozial berri bati ateak ireki zitzaizkion, zeinetan industrializazioak ekarri zituen mundu ikuskera berriak mundu ikuskera tradizionalen gainean eraiki ziren. XX. mendean, Bilbo hiri industrial eta modernoa bihurtu zen eta honekin batera, masa gizartea deritzoguna hedatu zen. Masa gizarte honetan, ideologia ezberdinetako prentsaren hedapen eta kontsumo masiboa, kultura politiko eta masa alderdiak, klaseetan bereizitako antolaketa urbanistikoa edota aisialdi eredu berriak identitate bilbotar plural baten eraikuntzarako elementu determinanteak izan ziren.

Jon Juaristiren ustez (1994), XX. mende hasierako Bilbo, antagonismoak eta gatazkak ezaugarritutako hiria izango da. Ez soilik kultura politiko antagonikoek garrantzia irabazi zutelako, baizik eta hazkunde demografikoak eta hauen eraginek (delinkuentziaren gorakada, enpresa tradizionalen segurtasun eza, ingurugiroaren narriadura...) efektu traumatikoa izango dutelako 1860. urtean 18.000 biztanle eskas zituen hiribilduan. Sabino Arana Goiri eta Migel Unamuno, ezaguna denez, 1860ko hamarkada horretan jaiotakoak ziren. (Juaristi, 1994:28-29)

Aipatu berri dugun Bilbo aurreindustrialia izaera liberaleko hiri bat izan zen. Unamunok, XIX. mendeko Bilbotar liberalismoa hilik zegoela aldarrikatu zuen arren (“Entre unos y otros, que propenden o al socialismo o al bizkaitarrismo, el viejo liberalismo de la Villa [...] ha sufrido un eclipse” (Fusi, 2004: 125)), esan daiteke, desagertu baino, bilbotar identitate liberala indar politiko antolatu bat izatetik Bilboren imaginario kolektiboaren eta memoriaren parte izatera pasa zela XX. mendean. Izan ere, XX. mendeko zenbait elementutan “espiritu liberal” horren arrastoa antzeman dezakegu, esaterako, “bilbainadak” bezala ezagutzen ditugun kantu herrikoietan.

2.1.1. Euskal pluralismoa mende hasieran

Dena den, XX. mende hasieran hiru kultura politiko nagusi elkarbizi izan ziren Bilbon. Alde batetik, Bilboko oligarkiaren eta monarkiaren interesen defendatzaile izango zen Víctor Chávarri enpresariak ordezkatu zuena; bestetik, euskal nazionalismoaren buru zen Sabino Aranak ordezkatu zuena eta azkenik, sozialismoaren defendatzaile zen Facundo Perezaguak ordezkatu zuena. Hiru kultura politiko hauek talka egingo zuten gizartean eta hauteskundeetan, hiru bloke elektoral garrantzitsuenak osatuz gerra zibilaren hasiera arte. Hamarkada hauetan, gizarteak zuen politizazio maila altuaren ondorioz, kultura politiko batekiko atxikimendua indibiduo eta kolektiboen identitateen eraikuntzaren ardatzetako bat izango da. (Larrinaga, 2018: 46)

Liberalismoa Bilbon, Euskal Herriko beste lurralde batzuetan baino azkarrago ezarri zen. 1897. urtean, Unión Liberal alderdia (“La Piña” bezala ezagutua) sortu zen, non enpresari handiek parte hartzen zuten eta zeinak monopolio elektoralaren jabe egin zen, tradizionalismoak (bai karlismoak eta bai honen eszisia zen integrismoak) pisua galtzen zihoan bitartean. 1900. urtean, Víctor Chávarri enpresaria hil zenean (“La Piña”ren erreferente nagusietako bat), Unión Liberal alderdia gainbeheran sartu eta honek bi alderdiren sorkuntza ahalbidetu zuen: Partido Kontserbadorea (Antonio Mauraren ideiei lotua) eta Partido Liberala. Bi hauek 1919. urtean bat egin zuten, monarkismoa eta euskal nazionalismoarekiko kontrakotasuna konpartitzen baitzuten. Kultura politiko honek XX. mendean zehar eboluzio kontserbadorea izan zuen, posizio antidemokrata eta autoritarioetara hurbilduz. (Larrinaga, 2018: 42-46; Fusi, 2004: 124).

Sozialismoari dagokionez, bi korrante nabarmendu behar ditugu XX. mendeko lehen hamarkadetan. Mende hasieran, Facundo Perezaguak ordezkatzeko joera obreristako sozialismoa izan zen nagusi. Honek, aliantza interklasistak albo batera uztearen beharra defendatzen zuen. 1914. urtetik aurrera Indalecio Prietoren joera egin zen nagusi, errepublikanoekin aliantzak egitearen, erreformismoaren eta kontziliazio laboralaren aldekoa. Sobietar Iraultzak eragin zituen PSOEko barne eztabaiden ondorioz, Facundo Perezaguak III.

internazionalaren aldeko jarrera hartu eta Bilboko komunisten elkartea sortu zuen. (Larrinaga, 2018: 51-52).

Azkenik, familia politiko handien artean euskal nazionalismoa dugu, Sabino Aranak ordezkatzeko zuena. XX. mende hasieran mundu tradizionaletik zetorren Bilboko burgesia txiki eta ertainarentzako erreferentzia bilakatu zen. Sektore honek baztertuta ikusi zuen bere burua industrializazio azkar baten ondorioz, oligarkia handiek botere ekonomiko gero eta handiagoa pilatzen baitzuten. Euskal nazionalismoak artikulatu zuen diskurtsoan, ikuspegi immobilista, antimaketoa, gizarte tradizionalaren aldekoa, katolikoa eta antiindustrialista uztartu zituen, sektore tradizional burges txiki eta ertainak erakarriz gehien bat (nahiz eta oligarkia handiko sektore batzuentzako ere erreferentzia politiko bihurtu zen. Horren adibide, esaterako, Ramon de la Sota enpresaburua dugu.) XX. mendeko lehen hamarkadetan euskal nazionalismoak komunitate zabal bat eratu zuen, zeinetan mistikak, sinbologiak eta Euskal Herriaren historiaren interpretazioak funtzio kohesionatzailea betetzen zuen. (Larrinaga, 2018: 55-57; Juaristi, 1994:32)

2.1.2. Identitatea indartzen duten elementuak

Klasea

Identitatea indartzen duen beste elementuetako bat hiriaren antolaketa urbanistikoa da. Bilbok, XX. mendean sartu ahala, klaseetan antolatutako egitura urbanoa berretsi zuen. Botere ekonomiko handieneko sektoreek hiriaren ensantxe edo zabagunea eraiki eta bertan kokatu ziren. Klase herrikoiek, bestalde, Alde zaharreko eta Bilbo zaharreko eremuak okupatuko dituzte lehen hamarkada hauetan. Alde zaharrari etorkin ugari gehitu bazitzaizkion arren, auzo interklasista izaten jarraitu zuen, non Bilbo aurremodernoko burgesia txikiko sektoreek (asko komertzio txikiei eta merkataritzari lotuak) biziraungo zuten. Langile etorkin ugari kokatu egin zirenez, eremu hauek kontzentrazio altuko eta baldintza higieniko kaskarreko eremuak bihurtuko dira. Auzo hauetan eraikuntza inprobisatuak nabarmendu ziren, eta horrek jende pilaketak eragin zituen. Hala ere, hazinamendu eta egoera higieniko kaskar honi aurre egiteko, 1911. urtetik aurrera etxe merke ugari eraikitzen joan ziren Bilbo inguratzen duten mendi magaletan. Dena den, argi dagoena da, klaseetan antolatutako egitura urbano honek, hiriaren segregazio maila eta auzoetako identitateen arteko talka areagotu zuela, auzoek klaseen arteko mugak marraztuko zituztelarik. Joseph Charlesen terminoak erabiliz, XX. mendeko lehen hamarkada hauetan auzoen arteko *distantzia sinbolikoa* areagotu

egingo da. (Larrinaga, 2018:137,144-146, 151; Río Gabiola, 2006: 4; Basurto eta Pacho, 2010: 489).

Klaseen arteko borroka, plano materialean emateaz gain, plano subjektibo edo identitarioan ere ematen da. Klase sozial bakoitzak bere posizio eta identitatea nabariarazi nahiko du, bai bere klase sozialari dagozkion ezaugarriak goraiatuz bai hirugarren batenak gutxietsiz. Zentzu horretan, burgesiak, kode sozial bereziak garatuko zituen bere identitatea definitu eta nabarmentzeko. Hitz egin dugun antolaketa urbanoaz gain, etxebizitza, klase dominantearen ikusmeneko hizkera garatzeko tresna bihurtu zen. Bilboko burgesiak, Europako burgesiaren jarrerak eta bizi estiloak imitatu egingo ditu. Euskal burgesiak zuzenean finantziatu zuen *Hermes* aldizkarian ikusi daitezke bilbotar burgesiak bere posizioa nabarmentzeko mahaigaineratzen zituen elementuak.

Izan ere, *Hermes* aldizkariak, bere lehenengo urtean, Bilboko burgesiaren etxebizitzaren inguruko erreportaiak argitaratuko ditu, *Moradas señoriales* eta *Residencias suntuosas*-en izenpean. Erreportai hauek 1917. urtean egindakoak dira eta hauen bitartez burgesia bilbotarrak irudi bat eraiki eta proiektatu zuen. Basurto eta Pachoren hitzetan, “los individuos se retratan a través de los objetos que los representan. La idea de la superioridad de estas familias, y por ende del grupo social al que representan, se construye simbólicamente sobre esta ausencia material del individuo.” (Basurto eta Pacho, 2010: 489).

Erreportaietan, Ibarra familiaren Arriluze jauregia (1910), Víctor Chávarri familiaren jauregia (gaur egun gobernu zibila dena, 1889) edota Ramón de la Sotaren bizilekua (Ibaigane jauregia, 1898) aurkeztuko dira, besteak beste. Jauregiak diseinatu dituzten arkitektoetatik hasita, aukeratuko duten estiloraino (askotan Ingalaterrako burgesiak erabiltzen zuen estiloan oinarrituta), klase burgesaren bereizgarritasuna azpimarratzea izango dute helburu. Klase burgesaren identitatearen eraikuntzan elementu tradizionalak eta elementu berriak (Britania Handitik inportatuak) uztartu ziren, bilbotar burgesiak proiektatu nahi zuen irudia komunikatzeko klabeak bihurtu zirenak: “De alguna manera, lo antiguo se asociaba con lo bueno, con lo ético, lo eterno, mientras que lo moderno lo hacía con lo bello, lo comfortable, lo actualizado, lo vital.” (Basurto eta Pacho, 2010:495)

Bestalde, klase ertaineko imaginarioan, langile klaseko gizonak alkohol eta tabernarekin lotuak izaten ziren, eta emakumeak, promiskuitate edota poliandriarekin.

Eraikuntza hauek norberaren klasearen eta identitatearen estatusa altxatzeko balio zuten. Aurreindustrializaziotik etorritako Alde Zaharreko burgesia txikiko sektoreek industrializazioarekin haien burua bazterturik ikusi zuten, eta horregatik, Bilbo aurremoderno eta aurreindustrialala idealizatu ohi zuten. XX. mendeko bilbotar idazle askoren testigantzetan ere (Gortazar, Unamuno, Orueta....) XIX. mendeko Bilboren idealizazio bat ikusi daiteke, gatazka sozialik gabeko hiria, narriadurarik gabekoa, garai zoriontsuena, tentsiorik gabeko hiria goraiatzeko dutelarik. (Juaristi, 1994:35; Miren Llona, 2006: 287-295)

Alde zaharreko klase ertainaren espiritu burges txiki hau, askotan habanera erritmoz kantatutako kanta herrikoietan antzeman dezakegu: *bilbainadak*. 1920 eta 1930eko hamarkadetan hedatu ziren kantu herriko hauek, Alde Zaharreko burgesia txikiaren elementuak biltzen ditu. Izan ere, kanta hauetan Bilbok zituen gatazka sozialak edota narriadura ez dira aipatu ere egiten, eta horretaz gain, XIX. mendeko Bilbo aurreindustrialak zuen ezaugarri garrantzitsuenetarikoa biltzen da, euskaraz bustitzen zen gaztelaniarena. XIX. mendean, Bilbon, euskararen eragina nabarmena izanik, euskarazko hitz eta moldeak zituen gaztelania hitz egiten zen, *bilbotar dialektoa* ere deitu izan zaiona. Bilbainadetan, bilbotar dialektoaren hitz eta esamoldeak ikus ditzakegu. Era berean, sisipasa, bilbotar dialektoaren beste ezaugarrietako bat litzateke, bilbainadek urteetan gorde izan dutena. José Moronatik idatzia, 1852. urtekoa den estrofa honek (gero bilbainada famatu bihurtu zena) laburbiltzen du aurreko lerroetan aipatutakoa:

*“¿Ené que risas hisemos
al pasar por la Sendeja!
Chalos y todo nos hiso
desde el balcón una vieja”¹*

Hala ere, Bilbo aurreindustrialako idealizazio honen aurrean Vicente García Merinok hurrengo planteatzen du: “Pero, ¿eran todos felices? ¿Qué hay de los pobres, de las cargueras de los muelles, de los jornaleros de San Francisco? ¿En qué medida esta época rosada les alcanzaba a ellos? No cantaron estas gentes la felicidad de aquellos años (...)” (Juaristi, 1994: 35).

¹ C. de F. “Chimberiana”, *Euskal-Erria : revista vascongada*, 78, 1. sei. 1918, 499 or.

Azkenik, langile klaseak, marginalitate eta pobrezia gehien pairatzen zuen klaseak, klase altu eta ertainek sortutako estigmatizazio hauen aurrean, haien identitatea duinarazten zuten beharrei aurre egiteko zuten gaitasuna mahaigainean jarriz, edota *emakume sendo*-aren figuraren bitartez. Emakume sendoa, etxeko lanak antolatzeko, osasun ona duen eta familiaren edo auzokideen arteko sareak zaintzen dituen figura litzateke. Honek, emakumeen identitatea ez ezik, langile klase osoaren identitatea duinarazten zuen.(Miren Llona, 2006: 287-295)

Hizkuntza

Etorkin langile ugariaren bilboratzearekin batera, talka identitarioa beste plano batean ere eman zen, hizkuntzarenean. XIX. mendetik gaztelania nagusi bazen ere, euskarak presentzia nabarmena izaten jarraitzen zuen Bilbon XX. mendearen hasieran, batez ere auzo konkretu batzuetan. Horren adibide da, esaterako, Evaristo Bustinrtza Lasuenek, *Kirikiño*-k, idatzitako hau Begoñako auzoaren inguruan: “A pesar de que dentro y fuera de la iglesia se hablaba euskera, la palabra del señor se escuchó en castellano (...) aun siendo euskaldun el pueblo de Begoña y la mayoría de los feligreses que acuden a los pies de su virgen.”(Zuberogoitia eta Zuberogoitia, 2011:36). 1920. urtean, Bilboko udalak, errolda egiterako orduan, bilbotarrei ea euskaraz bazekiten galdetu zitzairen. Iturri horietatik jasotako emaitzen arabera, biztanleen %20ak euskara menperatzen zuen. (Aizpuru eta Zarraga, 2011: 116, 133)

Euskal lurraldeetatik etorritako etorkin asko euskaldunak izateaz gain, euskara, Bilbon geratzen ziren baserri eremuetan gordetzen zen, eta industrializazioak ekarri zuen hiriaren hazkundearen ondorioz, euskara bilbotarraren azken gotorleku ziren baserriek desagerpen gradual bat sufritu zuten. Industrializazioaren garapenaren eta baserri eremuen desagerpenaren arteko tentsio horretan, bilbotar *intelligentsia*-k bete betean bultzatutako prozesu batean, euskal hiztun komunitatea mespretxatua izan zen. Izan ere, euskal hiztun komunitateak *jeko*, *borono*, edo *bato* bezalako kalifikatzaileak jaso zituen, besteak beste, bilbotar elite intelektualaren partetik. Norberaren talde soziala positiboki baloratzeko eta hirugarren batena mespretxatzeko erabilitako tresna izan zen, beraz, hizkuntzarena. Ondorioz, euskaldun askok haien euskalduntasuna alde batera utzi zuten “murgiltze” sozialaren mesedetan. Gabriel Arestiren aitaren kasua da horren adibide. Abandotarra eta euskalduna

izatez, euskara alde batera utzi zuen eta seme-ari ez zion euskararik irakatsi. (Zuberogoitia eta Zuberogoitia, 2011: 20, 32).

Hala ere, bilbotar euskaltzaleek mespretxu egoera hori iraultzeko lan egin zuten. Euskaltzaleetasuna, askotan, euskal nazionalismoari loturik egon zen. Izan ere, sektore nazionalista batzuk euskalduntasuna haien identitatearen ardatzat hartu zuten. “Es deber de los socios euzkeldunes hablar el euzkera en los locales de la sociedad” (Zuberogoitia eta Zuberogoitia, 2011: 55) zioen *Euzko Gaztedija*-ren fundazio aktak. Bestetik, euskal nazionalismoari loturiko *Euzkeltzale Bazkuna* izeneko talde bat sortu zen, zeinaren helburu nagusia euskaraz bizitzea eta euskarak Bilbon presentzia izatea zen. Taldearen ekimenek bilboko biztanle asko euskaldundu zituen (Zuberogoitia eta Zuberogoitia, 2011: 59-65).

Esan daiteke Bilboko Alde Zaharrean bizi zela giro euskaltzaleena XX. mende hasieran. Bertan aurkitu ziren, besteak beste, giro euskaltzaleko tabernak (*La bombilla*, *Vizcaya* edota *La Estrella* bezalako tabernak), euskara ikasi eta zabaltzeko espazioak (Bidebarrieta kaleko 14 zenbakian kokaturik zegoen “euskaltegia”²) edota lehenengo ikastola (Belostikale kaleko lehenengo zenbakian, 1932. urtean irekia). Ibone Altunaren hitzetan, “había tres o cuatro aulas, y en cada una unos veinticinco niños. En total éramos más de cien niños, la mayoría hijos de comerciantes del Casco Viejo” (Zuberogoitia eta Zuberogoitia, 2011: 107-108, 114, 116).

Prentsa eta aisialdia

Eskolarizazioari dagokionez, langile klaseko seme-alabek, ekolarizatu baino, bizirauteko beharrezkoak zituzten erakundeetara jo zuten, zeinetan kristau humanismoak eta benefizientzia liberalaren espirituak bat egiten zuten. Bestalde, klase ertaina osatzen zuten funtzionarioen eta komertzianteen seme-alabak Bilboko hamaika eskola publikoak okupatu zituzten, eta bigarren hezkuntza bat ere jaso zuten. Azkenik, Bilboko elite ekonomikoaren seme-alabek Jesusen lagundiak zuzentzen zituen Deustuko unibertsitateetara jo ohi zuten. (Larrinaga, 171-172).

Klaseen araberrako eskolarizazio hau gorabehera, Bilbon gehiengo batek idatzi eta irakurtzen zekien XX. mende hasieran (1877ean jada biztanleriaren %54,23a zegoen

²“Euskaltegi” hitza geroago sortuko da

alfabetatua), eta Bilboko alfabetizazio tasa estatuko bataz bestekoaren gainera kokatzen zen. Horrek, XX. mende hasieran, prentsa masek kontsumitutako komunikabidea izatea ahalbidetu zuen. Prentsak, komunikatzeko ez ezik, mundu ikuskera jakin bat indartzeko, errelatoa eraikitzeke, herritarrak posizionatzeko eta beraz, hauen identitatea indartzeko balio du. Horregatik, Bilboko XX. mendeko lehen hamarkadetan, aurretik aipaturiko kultura politiko nagusiek ideologikoki gertu edukiko duten prentsa kaleratuko dute. Horrela, *El liberal* (monarkikoa hasieran eta errepublikazale-sozialista errepublika garaian³), *La gaceta del norte* (monarkiko eta katolikoa), *El pueblo vasco* (monarkikoa eta enpresari handien interesen aldekoa) edota *Euzkadi* (Euskal nazionalismoaren aldekoa) izan ziren XX. mende hasierako egunkari irakurrienak. Horrekin batera, aldizkari kulturalak (lehen aipaturiko *Hermes* aldizkariaren kasua adibide garbia da) eta kafe tertuliak ideien hedapenerako tresna garrantzitsuak izan ziren. (Larrinaga, 2018: 192-200)

Izaera ludikoko espazioek gero eta garrantzi handiagoa hartu zuten bilbotarren bizitzetan. Lehen aipaturiko kafe tertuliak, Bilboko elite intelektuala biltzen zen espazioak ziren, eta entzulez beteriko tertuliak izan ohi ziren. Kafe tertulia hauek momentuko eztabaida politiko eta kultural garrantzitsuenak markatuko zituzten, eta ideien hedapenerako gune garrantzitsuenetarikoak zirela esan dezakegu. Horren adibide da Lion d'Or kafetegian egiten ziren tertuliak, non bertan parte hartzen zutenek kontserbadurismo antiliberal bat konpartitzen zuten.

Hegemoniaren aldeko lehia eman zen beste espazio bat jaiena izan zen. Nahiz eta jai nagusienak elizak antolatu eta bultzatu ohi zituen, industrializazioarekin batera elizaren antolaketatik at geratzen ziren jai ludiko berriak hedatzen ari ziren. "El Sitio" izeneko elkartean biltzen ziren liberalek antolatzen zuten maiatzaren 2ko jaiak, esaterako, gero eta ospe handiagoa zuten. Gainera, zinea, zezen ikuskizunak eta kirola aisialdi eredu berri eta masiboaren ardatzak bihurtu ziren. Sektore aberatsenak Lamiakon antolatzen ziren zaldi lasterketetako kontsumitzaile nagusiak ziren bitartean, 1913. urtean eraikitako San Mamés futbol zelaiak sektore herrikoietako gero eta zaletu gehiago erakartzen zituen. Aisialdi espazioetan, hortaz, klase bereizketa nabarmena zen, norberaren klasearekiko pertenezia sentimendua indartzen zuena. Igandeetan, bilbotarrek ohitura zuten Gran Vía inguruetara paseoan ibiltzea. Idatzita ez zegoen lege baten antzera, burgesiak espaloi batetatik ibiltzeko

³ 1932. urtean Indalecio Prietok erosi zuen.

ohitura zuen, langile klaseak bestetik egiten zuen bitartean. Bitxikeria izan daitekeen arren, adibide honek ederki islatzen du klase identitateak zuen indarra. (Larrinaga, 2018: 200-212; Fusi, 2004: 123; Zuberogoitia eta Zuberogoitia, 2011: 88)

2.1.3. Euskal pluralismoa errepublika garaian.

Errepublika garaian, aurretik aipatutako hiru kultura politiko nagusi hauek jarraitu zuten elkarrekin lehian, nahiz eta birformulatu egin ziren hiru bloke asimetriko osatuz. Asimetriko diogu eskumako blokeak, lider erreferenterik gabekoak, nazionalismoak eta sozialismoak baino indar gutxiago zuelako. Bilbon, karlismoak ez zuen eskumako ideologia ordezkatzen, baizik eta monarkismo alfonsinoak, burgesia industrial eta finantziarioaren interesak defendatzaile zena. Hiru blokeak birformulatu zirela diogu bai beste tendentzia politiko batzuk gehitu zitzaizkiolako (Cedismoa edo Falangea adibidez eskuman) edo bai eszizioak sortu egin zirelako (PNV/ANV adibidez). Halere, bi izan ziren 30eko hamarkadako alderdi politiko indartsuenak: EAJ-PNV eta PSOE. Izaera iraultzaileko alderdiek (PCE eta CNTk nagusiki), azkenik, indar gutxi izan zuten Bilbon.

Aurretik aipatu bezala, Bilboko sozialismoak ezaugarri bereziak zituen, eta bere izaera moderatu, errepublikar eta errefomistagatik, langile mugimenduaren eta klase ertaineko errepublikarren arteko konfluentzia espazioa bihurtu zen. EAJk, bestalde, oinarri sendo bat zuen. 1936an, esaterako, 12.500 afiliatu eta 13 egoitza zituen. Gainera, errepublika garaian, apaiz askok artikuluak idatzi zituzten euskal gaien inguruan, eta sermoi asko ere euskaraz egin ziren. Hori EAJren ideien hedapenerako tresna garrantzitsuenetarikoa bihurtu zen. Hala ere, II. Errepublikan errepublikano-sozialista izan zen Bilbon indar hegemonikoa. Errepublika garaian, bi eztabaidagai nagusi izan ziren: erlijioa eta euskal lurraldeen autonomia. Eztabaida hauek direla eta, batzuetan kultura politikoen arteko hurbilketa ematen zen (karlistak eta nazionalistak errepublika hasieran, edota nazionalistak eta sozialistak errepublikaren amaieran, adibidez) (Rojo, 2001: 293-294).

Bilbok, XX. mendearen hasieratik gerra zibilera arte identitate anitz eta plurala izan zuen, zeinetan identitate ezberdinak harreman dialektiko batean elkarbizi ziren. Horregatik, bilbotar identitateaz baino bilbotar identitateez hitz egin dugu. Aurretik aipatu ditugun elementuek (kultura politiko sendoak, ideologia ezberdineko egunkariak, sektore sozialen

araberako aisialdi motak, antolaketa urbanistikoak...) identitate anitz baten eraikuntza ahalbidetu zuten.

2.2. Frankismoa, identitate baten inposaketa

1937. urtean armada frankista Bilbon sartu zen. Erregimen frankistarekin, aurreko identitateak, desagertu baino, subalterno bihurtu zirela esan dezakegu, klandestinitatean biziraun eta transmitu zirelako. Dena den, ofizialki identitate bat eta bakarra baimendu zen. Horren erakusle da soilik bi egunkari jarraitu zirela argitaratzen, *La Gaceta del Norte* eta *El diario vasco*, gerra zibilean soilik Bilbon 16 egunkari argitaratu ziren bitartean. 1938. urtean beste egunkari bat gehitu zitzaien, *Hierro* egunkaria, falangearen prentsa organoa. Politikoki ere euskal pluralismoa klandestino bihurtu zen eta jada aurretik aipatu ditugun alfonsino monarkiko ohiak izan ziren Bilboko udaletxe berrian karguak bete zituztenak. Frankismoan zehar, oro har, Bilboko kargu instituzionalak Neguriko elite politiko-ekonomikoarekin harremana zuten kideek beteko dituzte, erregimenari leial eta gerra zibilean aktiboki parte hartutako kideak zirenak. Hari historiko hau Pilar Careaga eta José Luis Berastegirekin bukatu zen. (De la Granja, 2004: 146-151; Larrinaga, 269, 295).

Frankismoak, eremu publikoa identitate berri baten eraikuntzaren zerbitzuan jarri zuen, finean, identitate bakar bat inposatzeko asmoarekin. Ikonografia, kaleen izen aldaketak, euskararen debekua esparru guztietan, monumentuak... identitate nazional katolikoaren eraikuntzaren zerbitzura jarri ziren, eta elizak, noski, paper garrantzitsu bat jokatu zuen pentsamendu nazional katoliko horren ezarpenean. 1945. urtetik aurrera, historikoki sozialismoak dominatu duen hiriko langile auzoetan, erregimenak, eliza ugari eraiki zituen.(Rojo, 2001:292)

Aurreko urteetan masibo bihurtu ziren aisiali forma berriak ere, erregimenaren zerbitzuan jarri ziren. Zezen ikuskizunak, zinema eta futbola aisialdi masibo horren ardatzak ziren. Aisialdiaren instrumentalizazioaren bitartez, erregimenak identitate nazional-katolikoa bilbotarren egunerokotasunean txertatu nahi izan zuen. NO-DOa instrumentalizazio horretarako propaganda tresna garrantzitsuenetarikoa izan zen. Claudia Gómezen arabera, Bilbo NO-DOaren 141 emanalditan agertu zen 1943-1975 urteen bitartean. Athletic Club

taldeak gero eta jarraitzaile gehiago zituen garaian, klubaren espainiartasuna azpimarratzea erregimenak inposatu nahi zuen identitatearen hedapen eta normalizaziorako estrategikoa bihurtu zen. NO-DOak Athletic-en garaipenak espainiar abertzaletasunaren garaipen bezala aurkeztuko ditu. Horren adibide da, esaterako, Athletic-ek “generalísimo”aren kopak irabaztean, jarraitzaileen alaitasuna kopak zuen zentzu politikoarekin nahasteko erabiltzen zela. Finean, jada Athletic-en bitartez eraikita zegoen identitate lokal hori Espainia nazional-katolikoaren markoan kokatzea zen asmoa. (Muñoz, 2011: 63-66; Gómez, 2016: 189)

NO-DOaz gain, erregimenak baloreen transmisiorako erabiliko duen tresna garrantzitsuena zinema izango da. Zinemak intenzionalitate politiko garbia izango du frankismoan zehar, non katolizismoa eta espainiar patriotismoa identitate eraikuntza honen ardatzak izango diren. Azkenik, jaiak, ideologia nazional-katolikoak kaleak hartzeko eta bizitza publikoan eragiteko espazio bihurtu ziren. Errepublikara garaian ospatzen ziren jaiak debekatu eta egun berrietan ezarri ziren, hain zuzen, efemeride ezberdinak gogoratzeko: Larrinagako presoek hilketa, Bilbon tropa frankistak sartu ziren eguna, urriaren 12a arraza eguna, azaroaren 20a... 1950eko ekainaren 26ko NO-DOan, esaterako, ikus daiteke Francok ikonografia frankistaz apainduriko Bilbon egindako bisita, hiriaren “askapenaren” 13. urteurrena gogoraraziz.⁴

Dena den, klandestinitatera indarrez eramandako kultura politikoak, ofizialki ez bazen ere, bizirik mantendu ziren. 1946. eta 1947. urteetan jazotako gertaerak dira horren adibide. 1946. urtean, Molari eskeinitako Areatzako monumentua leherrarazi zuten eta 1947. urtean, erbestean zen euskal gobernuak deitutako greban 30.000 langilek parte hartu zuten. Hala eta guztiz ere, 1950 eta 1960. hamarkadetan erresistentzia hori itzali egingo da, neurri handi batean erbestetik zuzentzen zen oposizioaren estrategiak porrot egin zuelako. Identitate subalternoak, batez ere sozialismoari eta euskal nazionalismoari loturikoak, eremu intimoetan transmititzen jarraitu ziren. Euskal nazionalismoaren erresistentzia espiritu edo identitatea kuadrilen bitartez mantendu zen, hauen bidez sortzen ziren sozializazio espazioetan (izan arratsaldeetako poteoa edo izan mendi irteerak) gordetzen baitzen erregimenak debekatutako euskal identitate nazionala, eta espazio intimo hauetan, askotan dantza edo mendi elkarteen babespean, erabiltzen ziren euskara edo ikur nazionalistak.

⁴ NO-DO, 390 B zenb. (1950ko ekainaren 26a).

Intimitatean buruturiko jarduera hauek transgresoreak bezala ikusiak ziren zuten izaera klandestinoarengatik, eta ondorioz, identitatea bera sendotzen zuten. (Gómez: 187-189, Larrinaga: 377, 389-391)

Erbestean zeuden alderdi politikoek zuzentzen zuten strategiaren porrotaren ondorioz, 1950. eta 1960. hamarkadetan, biztanleriaren politizazio maila jaitsi egingo da, eta proiektu politikoen faltan, garapen ekonomikoak zekarren kontsumoaren igoerak markatuko ditu bilbotarren lehentasunak: Seat 600aren eskuratzeak, etxebizitzaren erosketak edo alokairuak (lehen zeuden formulatik eskapatuz: txabolismoa, partekatutako pisuak...), epeka ordaindutako etxetresna elektrikoak, disko-jogailuak edota igande arratsaldeetako futbola entzun ahal izateko “Vanguard” transistoreak. Hamarkada hauek kultura politiko zaharren eta berrien arteko trantsiziozko hamarkadak izan ziren. Kultura politiko zaharrak (euskal nazionalismoa eta sozialismoa) birformulatu egingo dira. Gainera, bilbotar identitateari osagarri gehiago gehituko zaizkio. Pluralismo berri baten atarian gaudela esan dezakegu, beraz.

3. Bilboko identitateen arteko harremana eta bilakaera 1960. urtetik aurrera

Autarkiaren bukaerarekin batera, Bilbok garapen industrial handia bizi izan zuen. Industrializazioaren garapen honen ondorioz, hazkunde demografiko nabarmena eman zen. 1950. urtean Bilbok 227.000 biztanle izatetik 1975. urtean 430.000 biztanle izatera pasa zen. Gainera, 1960. urteko datuen arabera, Bilboko biztanleriaren %48,59a ez zen Bilbon jaiotakoa, hau da, etorkina zen. Hazkunde demografiko handi honen ondorioz, etxebizitza arazoa nabarmendu zen. 1961. urtean 15.000 pertsona txaboletan bizi ziren Bilbon, eta etxebizitza eta ekipamendu sozialen gabezien aurrean, auzo ezberdinetako auzokideak antolatzen hasi ziren auzo elkarteak sortuz. Auzo elkarte hauen zeregin nagusia, oinarrizko ekipamendu sozialen alde (ur edangarriaren hornikuntza, saneamendua, etxebizitza eta eskolen eraikuntza...) borrokatzea izan zen. Auzo elkarteetan kultura politiko ezberdineko sektoreek parte hartu zuten, nazionalismo erradikaleko sektoreetatik, elizarekin lotura zuten HOAC edo Juventud Obrera Católica bezalako taldeetaraino. (Larrinaga, 2018: 342, 360; López, 2018: 49)

3.1. Kultura politiko zaharren birformulazioa, oposizio berriaren artikulazioa eta kultura

Industrializazioaren garapenaren beste ondorio bat langile mugimenduaren indartzea izan zen. Langile mugimendu indartsu hau sindikatu bertikalaren egituretatik at antolatzen hasi zen. 1963. urtean Comisión Obrera Provincial sortu eta 1966. urtean 163 egun iraun zuen frankismoko greba luzeena antolatu zen. Fabriketan antolatzen zen borroka sindikalera gerra bizi ez zuten gazte belaunaldi berri bat batu zen. Militante berriek, sindikalista betanoekin batera, langile mugimendua berreraiki zuten, eta berreraikuntza horretan, langile mugimenduaren identitatea bera berreraikiko da. (Larrinaga, 2018: 298-301)

Zigmunt Bauman soziologoarentzat, fabrika egunerokoa irabazteko espazioa baino askoz gehiago da: “su domicilio común, simultáneamente campo de batalla de una guerra de trincheras y hogar natural de sueños y esperanzas” (Beorlegui, 2018: 822). Bilbo industrializatuan, fabrikak hartzen zuen espazio fisikoaz gain, herritar askoren identitatea eraiki zuten. José Ramón Castañosek horrela gogoratzen ditu Labe Garaiak: “Habíamos nacido con ellas, nos hemos criado con ellas... y nos parecían eternas” (Beorlegui, 2018: 822). Gainera, fabrikaren inguruan ematen ziren dinamika sozialak, hala nola espazio zalapartatsuak edo langile masen joan etorriak fabriketatik poteo guneetaraino, atmosfera beraren baitan kokatu behar ditugu. Fabrikak era integral horretan aztertzeak herritar askok eraiki zuten langile identitatea ulertzea ahalbidetuko digu. (Beorlegui, 2018: 822-824)

Fabriketako militantziak zuen ezaugarriengatik, langile identitatea sozialki positiboki pertzibitutako identitatea bihurtu zen. David Beorleguiren hitzetan aurkitu dezakegu honen azalpena: “la misión redentora que se atribuía al movimiento y la clandestinidad a la que se veía obligada la lucha fabril, invistieron a la identidad obrera de un halo de misterio y fascinación que resultó indudablemente atractivo a quienes optaron por incorporarse al movimiento durante los últimos años de la dictadura” (Beorlegui, 2018: 826). Hain da horrela, langile munduan jaioak ez ziren gazte batzuk fabriketara joaten zirela lanera, langile identitateak eta fabriketako borrokek erakarrita. Luis Alejos eta Mariví Marañonen testigantzak dira horren adibide. Lehenengoa, La Navaleko langilea eta Comisiones Obreras, COS eta EMK-ko militantea izan zen, eta bere hitzetan “hasta los hijos de familias bien situadas iban a la fábrica (...) había que hacer la revolución, y la tenían que hacer los obreros”

(Beorlegui, 2018: 826). Mariví Marañon Iberdueroko langilea izan zen, eta Comisiones Obreraseko eta EMK-ko militantea izan zen ere: “yo no estudiaba más, que pa qué... ahora que están las fábricas. A hacer la revolución. Objetivo: hacer la revolución. ¿Dónde se hace la revolución? Pues en las fábricas”.(Beorlegui, 2018:826-827)

Kulturan ere aldaketa batez hitz egin dezakegu. Lehen aipatu dugun erregimenaren interesetara sortutako kulturaz gain, jada 1955. urtean Blas de Oterok *Pido la paz y la palabra* obraren bidez gizakiaren miseriak salatu zituen. Halere, 1960eko hamarkadara arte itxaron beharko dugu haustura batez hitz egiteko. Blas de Oterori, Gabriel Aresti edota Ramiro Pinilla gehituko zaizkio. Estilo eta jorratutako gai berriek talka bat suposatuko dute tradizioarekin. 1962. urtean “Estampa popular” taldea sortu zen, alderdi komunistari lotua, bizkaian oso aktibo egon zena, eta 1965. urtean “Ez dok amairu” taldea. Jada 1970eko hamarkadan sartuta, eta batez ere frankismo bukaeratik aurrera, fanzineak, txosnak, irriti libreak, kontzertu eskaintzak... areagotu egin ziren.

Gabriel Aresti poetak bere obran euskal identitatearen birformulazio bat eskaintzen digu. Arestiren obran, euskal abertzaletasunaren birformulazioaren zantzuak ikusi ditzakegu, euskal nazionalismoaren eta sozialismoaren ideiak biltzen dituelako. Arestiren poesiaren baitan ikus dezakegu Bilboko euskal identitatearen eta euskalduntasunaren espainiartzea eta horrek eragiten duen estutasun eta iraganarekiko dolua. Izan ere, Bilboko euskalduntasuna landa eremuari lotua zegoenez, hiriaren industrializazioarekin batera euskalduntasuna eta identitate euskaldunaren galera mailakatua eman zen: “Aresti percibe un Bilbao transitorio e inestable donde, en esa época, se runden culturas y subculturas, clases sociales ampliamente diferenciadas, la tradición y la innovación, pasado y futuro, la nacionalidad vasca y la articulación de la espanolidad.”(Río Gabiola, 2006: 3). Poeta marxistak, hiriaren espainiartzearekin eta euskararen galerarekin sufritzen zuen bitartean, ikuspuntu sozialista batetik, era berean, langile klasearen (euskalduna zein erdalduna) bizi baldintza kaskarrak mahaigaineratzen ditu. (Río Gabiola, 2006: 3, 9).

Bestetik, alderdi politiko eta sindikatu ezberdinetan ere euskal nazionalismoaren eta ideia marxisten arteko uztarketa bat eman zen. 1959. urtean sortutako Euskadi Ta Askatasuna izeneko talde armatua uztarketa horren aitzindaritzat hartu daiteke. ETAREN jardun armatuak jopuntuan jarri zituen erregimen frankistako egitura instituzionaletan parte hartu zuten elite ekonomiko-politikoko kideak. Honen adibide dira Javier Ybarra eta Pilar Careaga alkate

ohien kontrako atentatuak. 1970. hamarkada izan zen alderdi politiko asko sortu ziren hamarkada. Gainera, langile mugimenduaren zati handi batek, gatazka laborala ardatz izatetik konponbide integralago baten aldarrikapenetara emandako jauzi kualitatiboa nabarmendu beharra dago. Horren adibide 1970. hamarkadan egondako bi juizio politiko nagusiei langile mugimenduak emandako erantzuna dugu. Horri, euskal elizaren sektore baten oposizioa gehitzen badiogu, antifrankismoaren txapelak kultura politiko eta korrante politiko ugari barnebildu zituela ikus dezakegu. (Mota, 2018: 422; Larrinaga: 301-311).

Mapa politiko eta kultural anitz honen islada bihurtu zen lehenengo Aste Nagusia. 1978. urteko lehenengo edizio horretan, *El País* egunkariak milioi bat pertsonako parte hartzea nabarmendu zuen, eta *Egin* egunkariak ere herriaren parte hartzea azpimarratu zuen. Lehenengo Aste Nagusia antolatzen, izan ere, Natxo de Felipe (*Oskorri* taldeko abeslaria), Santiago Burutxaga (*Cómicos de la legua*-ko aktorea) edota Juan Carlos Eguilleor (geroago *Euskadi Sioux*-eko kidea izango zena) ibili ziren. (López, 2018: 42).

1978ko lehenengo Aste Nagusia bilboko herri mugimenduaren erakustaldi bat bihurtu zen. Parte hartzea, masiboaz gain, anitza izan zen, talde kultural, sozial eta politiko ugari hartu baitzuten parte. Pluralismo hau txosnetan ikusi dezakegu. 24 txosnetatik 16 auzo elkarte ezberdinek jarri zituzten. Gainontzekoak, talde sozial eta politikoek jarri zituzten: *Arrainak*-PCE/EPK, *Bizizaleak*-ekologistak, Araba etxea, *Hontzak*-CNT, *Satorrak*-LCR/LKI, *Txomin Barullo*-MCE/EMK, *Pinpilipauxa*-EHGAM eta COPEL.

3.2. Bilboren industriaren eraispena eta krisi sozialeko identitateak

Krisi industrial eta ekonomikotik eratorritako eraispen industrialak gogor kolpatu zituen bilbotarrak. Langabezia tasak eta gatazka sozialak nabarmen areagotu ziren. Bilbok 1981. urtean 433.115 biztanle zituen bitartean 1991an ez zen 370.000 biztanlera heltzen. Arrazoiak, nagusiki bi dira: jaiotza tasaren jaitsiera eta krisi ekonomikoak ekarri zuen inmigrazioaren eteteak. (Larrinaga, 2018: 452).

Eraispen industrialak bilbotar askoren identitatea ere markatu zuen. Bere burua eraldaketa sujetotzat zuen fabriketara loturiko langile klaseak atomizazio prozesu bati ekin zion. Atomizazioaz gain, langabezia tasen gorakadak, drogen kalteak, etorkizun ezegonkorrak, fabrika inguruan sortzen ziren espazio bizien galerak... identitatea apurtu eta etsipen sentimendu bat egin zuen nagusi, eta ondorioz, iragan industrialarekiko nostalgia sentimendu bat sortu zen. Andrew Petchardek, Glasgowren kasuan (Bilboren antzeko biziberritze prozesua izan zuen hiria) industriaren eraispenak zauri kulturalak eragiten dituela planteatu du (Beorlegui, 2018: 837).“Crónicas de la arboleda” dokumentaletik ateratako esaldi honek biltzen du aurreko lerroetan esandakoa: “Movimiento, vitalidad... ya no era más que un montón de escombros. Es verdad... me daba pena, se me caía el alma a los pies...” (Beorlegui, 2018: 841). David Beorleguiren hitzetan, “el cierre y demolición de los factorías, en ese sentido, no sólo entrañó una brutal transformación de la ciudad, sino que alteró sustancialmente las coordenadas espacio-temporales de una varias generaciones forjadas entre el humo y el fragor de las fábricas, testigos del fulgor y la ruina de la identidad obrera”.(Beorlegui, 2018: 843).

Azkenengo hitz hauek eta lanaren sarreran esandakoa batzen baditugu, hau da, identitatea gizartean gizakiak bizitzeko duten heldulekua dela, fabriken eraispenarekin helduleku historiko baten apurketaz hitz egin dezakegu. Sendoak ziruditen langilez beteriko fabrikak munstro industrial hutsak bihurtu ziren, bizitzaz beteriko langile sozializazio espazioak drogez bustitako espazio dekadenteak bihurtu ziren, ziurra zirudien fabrikako lanpostua desagertu zen eta utopian eta antolakuntza politikoan sinisten zuen langile mugimendu baten ondotik langabezian eta pobrezian hezitako belaunaldi bat hezi zen, zeinak etorkizunean eta bizitzan sinisteari utzi zion. Nahiz eta bilbotarrak ez izan, Eskorbuto punk taldearen letrek islatu zuten eraispen industrialak sektore marginal batzuen identitatean izan zuen eragina. Heldulekurik gabe, helduleku eza bera bihurtu zen helduleku. Marginaltasuna, dekadentzia eta etorkizun ezarekin identifikatu zen belaunaldi oso batek marginaltasuna elementu identitario bihurtzeraino.

Perdida la esperanza, perdida la ilusión

Los problemas continúan, sin hallarse solución

Nuestras vidas se consumen, el cerebro se destruye

Nuestros cuerpos caen rendidos, como una maldición (...)

El terror causando hábito, miedo a morir

3.3. XXI. mendeko bilbainismoa

Krisi sozialari eta Bilbok zuen narriadurari, 1983. urtean, uholdeak gehitu zitzaizkion. Hamarkada bukaeran, 1989. urteko apirilaren 29an, hiriaren biziberritzea deitu izan denaren oinarriak ezarri ziren, Hiri Antolamendurako Plan Nagusia aurkeztuz. Bertan, XXI. mendeko hirian errekak jokatuko zuen papera edota honen alboetan ezarriko ziren ekipamenduak planteatu ziren. Bilboren tertziarizazio prozesurako oinarriak jarri zituen. Behin betiko testua 1994. urtean onartu zen eta 1995. urtean martxan jarri zen. Hurrengo lerroetan, hiriaren eraldaketa urbanoarekin batera eraiki zen identitate dominante eta hegemonikoaren inguruko hipotesia planteatuko da, *XXI. mendeko bilbainismo* moduan izendatu dudana.

Aipatu berri dugun Bilboren biziberritze urbanoaren ardatz nagusia Abandoibarra paseoa eta honen barruan eraiki ziren potentzialitate turistiko eta kultural handiko eraikinak izan ziren. Oinezkoen paseorako egokia den ibai ondoko ibilbideak, Bilbo Europako lehen mailako hiri kultural bihurtzeko anbizioa duten eraikin erreferentzialak konektatzen ditu. Guggenheim eta Euskalduna jauregia erreferentziatzko eraikinak direlarik, inguruan bigarren mailako eraikinak antolatzen dira: Calatravaren zubizuri zubia, Arrupe pasarela, Ibedrola enpresaren dorrea, Deustuko unibertsitatearen liburutegia, Artaka Isozakik diseinaturiko dorreak... Paseoak ez ezik, erreferentziatzko puntuetan geltokia duen tranbia batek artikulatzen du *ad extra* eraikitako egitura urbano berri hau, askotan edifizioek erakargarritasuna bilatzen baitute funtzionalitatearen gainetik, izan Guggenheimen kasuan non bisitari askok barrutik baino kanpotik gehiago baloratu izan duten, edota oraindik nabarmenagoa den Calatravaren Zubizuri zubiaren kasuan, non funtzionalitatearen inguruko zalantzak nabarmenak izan diren, demanda judizial batean bukatuz.(Huici, 2013: 521-524)

Era berean, eraldaketa urbano honek Bilboren eta bilbotarren subjektibitatean eragin nabarmena izan du, eraldaketa urbanoak berarekin errelato edo narrazio bat ekarri baitu. Errelatoaren oinarri diskurtsiboa, Bilboren eraldaketak, Bilboren estatus soziala maila goren batera eraman duela izan da, hiri degradatu bat izatetik entzutea duen hiri bat izatera pasaz.

⁵ ESKORBUTO: "Cerebros destruidos", *Anti-todo*, iraupena 2:34

Ez dira gutxi izan errelato hau konpartitu eta bere egin duten bilbotarrak, zeinaren bidez Bilborekiko atxikimendu, harrotasun eta finean identitate berezi bat eraiki den.

Azkenik, inplizituki bada ere, aipatutako eraldaketa urbanoak eta honek subjektibitatean izan duen eragina prozesua aurrera eraman duen alderdiarekin (EAJ) eta Bilbon arrastoa utzi duen figura nagusienetarikoarekin (Iñaki Azkuna) identifikatu izan da, ez soilik EAJ eraldaketa urbanoaren bultzatzaile eta udaleko agintari izan delako, baizik eta eraldaketa prozesuaren izaera bera Iñaki Azkuna bezalako figurak pertsonifikatu izan duelako. Horrela, XXI. mendeko bilbainismoaren eraikuntzan, elkar eragiten duten eta elkarrekin ulertu behar diren hiru elementuk hartzen dute parte: eraldaketa urbanoak, honek identitatean duen eragina eta honen autore moduan inplizituki aitortzen den alderdia edo figura politikoa.

Esan bezala, XXI. mendeko bilbainismoaren eraikuntza ezin da ulertu Iñaki Azkuna alkate ohiak jokatu zuen papera ez badugu ulertzen. Bere alderdiak barne hartu zezakeen espazio soziologikoak gainditu zituen figura izan zen. Alderdiko figura “heterodoxo” moduan ikusi izan da askotan. Independentista ez zela argiki esaten zuen, mugimendu sozialekin harreman txarra izan zuen (Bi urtez bi konpartsa debekatu zituen Bilboko jaietan eta 2011an mugimendu sozialentzako erreferentzia zen Kukutza gaztetxea desalojatu zuen), “guerra al navajero” bezalako esaldiekin eraiki zuen segurtasunarekiko diskurtsoa, Ezker Abertzalearekiko izan zuen mesfidantza... zuen karismari eta komunikaziorako gaitasunari gehitzen badiogu, EAJko espazio soziologiko tradizionalak gainditzen zituela ulertu dezakegu. Imanol Telleria soziologoaren iritziz (2019), “Bilbao” hiri marka hiru mezuren bitartez eraiki da: Hiriaren kudeaketa eraginkor eta fidagarria, promozio ekonomikoa eta Bilbo hiri seguru moduan identifikatzea. (Telleria, 2019:12)

Azkuna, durangarra jaiotzez, 1999. urtean heldu zen alkatezara. Urte horretarako jada Bilbok tertziarizazioko bidean pausu ugari emanda zituen. Horregatik, Azkuna, prozesu horretan kokatu baino, eraldaketa urbanoarekin batera eman zen identitatearen eraikuntzan kokatu behar dugu, hor Azkunak funtsezko papera bete baitzuen. “Bilbao ha mejorado en autoestima y nos sentimos capaces otra vez, como antaño, de levantarnos de nuestras cenizas. Que el señor Santiago, nuestro patrono, y nuestra patrona de Begoña nos iluminen”. (Azkuna, 2000: 109)

Azkunak berak idatzitako esaldi honek laburbiltzen du aurreko paragrafoetan azaltzen saiatu garena. Azkunak proiektatu nahi duen ideia hiriaren biziberritzeak hiriaren autoestimua altxatu duela da. Eztaba daezina da, Bilboren eraldaketa eta biziberritzeak Bilbo estetikoki aldatu zuela, eta bilbotarren gehiengo batek eraldaketa estetiko hori positiboki pertzibitu zuela. Era berean, eztaba daezina da hiriaren biziberritze prozesuak eraldaketa ugari izan dituela estetikoaz gain: tertziarizazioa, desindustrializazioa, turistifikazioa, etxebizitzaren prezioaren igoera...

Azkuna alkateak, beste askoren artean, hein handi batean eraikitako eta komunikabideek erreproduzitutako errelatoak gizarteak positiboki pertzibitutako elementuetan jarri zuen fokoa, hau da, eraldaketa urbanoaren bidez hiri degradatu bat izatetik hiri erakargarri bat izatera bilakatzearen prozesua nabarmendu zuen. Horregatik, prozesua beti prisma horretatik aztertzea eta proiektatzea klabea izango da hiriaren biziberritze prozesua sozialki ondo pertzibiturik egon dadin. Errelato horren gainean XXI. mendeko bilbainismo dominantea eraiki zen, eta errelatoak, era berean, Bilborekiko harrotasuna hauspotu zuen.

Aurreko paragrafoetan aipatutako ezaugarriak bilduta eraiki da Bilboko identitate dominante eta hegemonikoa, XXI. mendeko bilbainismoa. Dena den, bilbainismo kontrahegemoniko batez hitz egin ezin dezakegun arren, badira biziberritze prozesuarekin eraikitako identitatearekin bat ez egin eta honen albo-kalteak mahaigaineratu dituztenak. Zentzu honetan, mugimendu sozialetatik bilbainismo dominanteak hain baloratua izan duen hiri eta gobernantza ereduaren gabeziak azaleratu nahi izan dira. Izan “SOS racismo” taldetik non “Bilbo seguru” horren aitzakipean migranteak sufritu dituzten zapalkuntzak salatu diren (2013an, erroldatzeko jarri ziren gehiegizko oztopoen ondorioz biztanle askori oinarrizko ekipamenduen erabilera galarazi zitzaizen) edo izan auzo elkarrekin non udal proiektuen gardentasun eskasa eta biztanleen parte hartze aktiborako espazioen gabeziak salatu diren, besteak beste. Telleria soziologoaren iritziz (2019), hiri eta gobernantza ereduarekiko kritika hauek infantilizatu eta sinplifikatu nahi izan dira, eta udal gobernuak, hiriaren beraren kontrako erasotzat aurkeztu nahi izan ditu, gatazka sozialak udalaren indar irudia proiektatzeko instrumentalizatuz:

Basados en discursos populistas y simplificaciones de los conflictos sociales reproducidos por los medios de comunicación, esta conflictividad refuerza la idea de un

gobierno fuerte, capaz de tomar decisiones y que no se amilana frente a quienes amenazan al sistema. Sólo así se puede entender cómo el propio gobierno municipal es quien, en ocasiones, busca el enfrentamiento con determinados sectores sociales (es el caso de los inmigrantes en situación de exclusión), para posteriormente transmitir una imagen de fortaleza y control del orden público. (Tellería, 2019:16)

Bilbotar hiri posmodernoa, eraikin kanonikoek hiriaren identitatea eraiki nahi izan dute. Identitatea Guggenheim edo Euskalduna bezalako eraikin enblematikoen gainean soilik eraikitzean, partzialtasunak ezaugarritutako identitatea eraikitzen da. Ezin daiteke esan identitate integral eta konpletoa denik, sektore subalternoen kulturak, espazioak eta eraikinak ez baitaude errepresentatuak, isilaraziak dira. Gaurkotasunez beterik dagoen Gabriel Arestiren olerki honek ederki deskribatzen du esandakoa, lehen bezala, gaur egun ere “marineruek, pilotuek, egurrezko etxe haek, ijitoek”, eta finean, sektore herrikoi guztiek egiten baitute Bilbo:

*Hau da Bilbo, esan zuen gizonak.
Kapela zuria zeraman gizonak, eta
Hau da Bilbo, esan zuen. Hau da
Pinturaren Museoa, esan zenuten.
Peut-être, esan nuen, ez dakit.
Ez nekien. Ta zer? Ez naiz lotsatzen.
Zergatik burjesa egonen da
museo honetan izenez, laudorior,
(Halako konteak eman zuen pintura hau),
pilotuaren eta marineruaren
izenak
hilobi baten gainean ez daudenean?*

*Zer da hori? Seinalatu zenuten leihotik.
Deustuko Eskola. Jesuitena.
Ez, hangoa. Egurrezko etxe haek.
Ijitoak, esan nuen lotsaturik.
Urrutian entzuten zen trumoia.
Grekoa. Goia. (Aresti, 1964:25)*

4. Ondorioak

Aurreko orrialdeetan bilbotar identitateak XX. mendean izan duen bilakaera aztertu dugu. Horretarako, garai historiko bakoitzean identitatea eraikitzen duten elementuak nabarmendu eta hauek identitatearen eraikuntzari egindako ekarpena azaldu nahi izan da. XX. mende hasierako aniztasun identitariotik XXI. mendeko bilbainismora egindako bidai honetan, identitateek izan duten harremana eta talkak ikusi ditugu. Klase ertainak langile klaseko emakumeak estigmatizatu egiten zituen bezala haien ustezko promiskuitatea salatuz, bilbotar *intelligentsiak* landa eremuko euskaldunak mespretxatzen zituen maila intelektual baxuagoko seme-alabak zirela uste baitzuten.

Era berean, industrializazioaren garapenak identitate batzuk aldarazi edota (ia) desagerrarazi zituen, landa eremuko euskaldun bilbotarraren kasuan bezala. Industrializazioaren garapenak ekarri zuen Bilbo, bilbainadek aurkezten diguten paisaiatz gero eta urrunago zegoen. Gaur arte abesten diren bilbainadek erreka anguleroei buruz hitz egiten diguten bitartean, Eskorbuto punk taldearen letrek usain txarreko erreka zikinaren berri ematen digute.

Hiriaren prozesuaren metafora ederra izan daiteke futbola eta Athletic. Futbolean jokatzen zen “ingelesen landa” zelaiaren gainean industria astuneko “Euskalduna” ontziola eraiki zen. Industria hilerrri bihurtu zenean titaniozko bandera-ontzia altxatu zen 1997an. Industria astunaren zurruntasunari Guggenheimen eleganzia kontrajarri zitzaion, Clementeren zurruntasunari, “ostikada eta gorantz”koari Bielsaren arin eta malgutasuna kontrajarri zitzaion bezala. (Amezaga, 2018: 109)

Mende bukaerarekin batera, erreka eta hiri osoak biziberritze prozesu bati ekin zion, eta XXI. mendeko Bilborekin batera, identitate berri bat eraiki zen. Identitate horrek izan dituen funtzio politiko eta sozialak ikertzeko urteak ematen digun prespektiba historikoaren gabezia aintzat hartuta, identitate horren erro historikoak azaldu nahi izan dira, hiriaren biziberritzean kokatu ditudanak. Aztertzeke geratzen da, beraz, identitate dominante honek EAJren hegemonia politikoarentzako bete dezakeen funtzioa (funtziorik bete ezker), eta identitate horri gaur egun egiten zaizkion apelazioak hegemonia politiko horri eusteko. Halere, Bilbo hurrengo hamarkadetan egoera paradoxiko batean aurkitu daiteke, hiri-marka

bihurtzeak identitatea merkatuaren zerbitzuan jarri dezakeelako. Beste era batera esanda, identitatea bilbotarren helduleku izatetik, hiri-markak merkatuan nabarmentzeko erabiltzen duen azalezko produktu huts bat bihur daiteke.

BIBLIOGRAFIA:

- Aizpuru, M; Zarraga, K. (2011): Hizkuntzaren eremuak. Bilboko euskaldunak 1920. urtean. *Bidebarrieta*, 22, 115-133
- Amezaga, A. (2018). *Inor ez delako profeta bere mendean. Gabriel Aresti egunean*. Donostia: Erein.
- Aresti, G. (1964). *Harri eta herri: koplak, bertso, ditxo eta poemak=Piedra y pueblo*. Zarautz: Itxaropena.
- Azkuna, I. (2000). El Bilbao soñado de Iñaki Azkuna. *Bidebarrieta*, 8, 99-109.
- Beorlegui, D. (2018). La fábrica como espacio de lucha y de memoria, el caso de bilbao y la margen izquierda (1975-1995)”. *Historia contemporánea*, 58, 815-847.
- De la Granja, J.S.(2004). Bilbao en la II República y la Guerra Civil (1931-1937). In J. Tusell, *Bilbao a través de su historia: ciclo de conferencias conmemorativo del 700 aniversario de la fundación de la villa de Bilbao*.(131-155 or.) Bilbao: Fundación BBVA.
- Fusi, J.P. (2004). Bilbao en la época de Alfonso XIII. In J. Tusell, *Bilbao a través de su historia: ciclo de conferencias conmemorativo del 700 aniversario de la fundación de la villa de Bilbao*.(121-131 or.). Bilbo: Fundación BBVA.
- Gómez, C. (2016). La vida cotidiana en el Bilbao del franquismo a través del NO-DO. *Bidebarrieta*, 26,185-192.
- Huici, V. (2013). Reflexiones sobre la transformación urbana de Bilbao. *Inguruak*, 53-54, 521-524.
- Juaristi, J. (1994). *El chimbo expiatorio. La invención de la tradición bilbaína 1876-1939*. Madrid: Editorial Espasa Calpe, S.A.
- Larrinaga, C. (2018). *Del siglo industrial a la nueva era del turismo*. Bilbo: EHU.
- López, R. (2018). ¿Espacios libres en (la) transición? La primera Semana Grande de Bilbao. *Inguruak*, 64, 41-62.

- Muñoz, F.J. (2011). Una nueva ciudad para un nuevo Estado. La transformación de Bilbao en los años de posguerra. *Bidebarrieta*, 22, 61-77.
- Mota, D. (2018). He visto las calles ardiendo otra vez. La estabilización de la escena músico-política en el País Vasco durante la década de 1990. Del caso de Eskorbuto al de Negu Gorriak. *Historia contemporánea*, 57, 413-451
- Nieves, B., Pacho, M.J. (2010). Ascenso social y espacio doméstico en bilbao. La arquitectura como escenografía del poder. *Historia contemporánea*, 39, 481-512
- Peris, R. eta Agut, S. (2007). Evolución conceptual de la Identidad social. El retorno de los procesos emocionales. *Revista Electrónica de Motivación Emoción*, 10, 1-13.
- Río Gabiola, I. (2006). La construcción del espacio urbano en la poesía social de Gabriel Aresti: Bilbao ante la modernidad. *Bulletin of Hispanic Studies*, 83.6, 563-576.
- Rojo, S. (2001). El clero de bilbao frente a la evolución de la sociedad vasca (de la II República al franquismo). *Historia contemporánea*, 22, 290-306.
- Tellería, I. (2019). Neoliberalización y gobernanza en ciudades del País Vasco. *Inguruak*, 66, 1-19
- Zuberogoitia, J; Zuberogoitia, P. (2011). *BERTAN BILBO. La Villa y el euskera: historia social del siglo XX*. Bilbo: Baster, S.L.L.